



SEXU-INDARKERIA GATAZKETAN

Bizi garen gizarte-sistemak jaiotzean dugun sexuaren araberako eraikuntza du oinarri. Gizarte-eraikuntza horrek eta sistema horrek desberdintasunak eragiten dituzte gizon eta emakumeen artean, eta gizartean ditugun aukerak baldintzatzen eta mugatzen dituzte (maila pertsonalean, laborean, politikoan, ekonomikoan, zein sozialean). Sistema horrek botere-harreman desberdinak ezartzen ditu, eta emakumezkoen posizioa eta kondizioa ahulagoa izatea eragiten du.

Gure bizimoduaren arlo guztiak arautzen eta baldintzatzen dituen sistema horrek badu zerikusia, halaber, emakumezkoen eta gizonezkoen eragiten dieten gatazketan; alde handiak daude inpaktuari dagokionez eta erabakiak hartzeko uneetan eta ondorengo bake-prozesuetan benetan parte hartzeko aukerari dagokionez.

Sexu-indarkeria gerrako arma gisa baliatu izan da gatazketan, eta helburu militarrek eta politikoak izan ditu. Errealitate horren tamainaren erakusgarri, hona hemen Nazio Batuak baliatzen dituen datuak¹:

Ruandan, 94ko genozidioak iraun zuen 100 egunetan, kalkulatu da 100.000tik 250.000ra emakume bortxatu zituztela; Sierra Leonako gerran, 60.000; Liberialan, 40.000; eta Jugoslavia ohian, 60.000; KEDn 98tik², 200.000 emakumezko baino gehiago bortxatu dituzte.

Nazioarteko komunitatea gero eta kezkatuago dago gai horretan, eta, horren ondorioz, zenbait ebazpen eman ditu Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak³. Ebazpen horietan, emakumezkoen, bakearen eta segurtasunaren gaiak lantzen dira. Bakerik edo segurtasunik gabeko aldietan emakumezkoek jasaten duten eragin bereizgarrian jartzen da arreta; bakea eraikitzeko prozesuetan duten zeregina onartzen da, eta aitortzen da beharrezkoa dela emakumezkoek ere parte hartzea erabakiak hartzeko uneetan, aurrez aurre dituzten egoerak aldatzeko. Parte-hartze horrek maila guztietan gertatu behar du, hasi tokian bertan, komunitateetan zein nazioarteko mailetaraino. Hain zuzen ere, Idazkari Nagusiaren Ordezkaritza Bereziaen figura sortu zen 2010ean, Gatazketako Sexu-Indarkeriaren gairako; 2012tik, Sierra Leonako Zaina Hawa Bangura politikaria da ordezkaritza berezi hori.

Sexu-indarkeria ez zen delitutzat hartu nazioartean 1992ra arte; Jugoslavia ohiko gatazkaren ondorioz aitortu zen arte. Nazioarteko zigor-epaitegiek (Jugoslavia ohikoak eta Ruandakoak) mugari batzuk ezarri dituzte ordutik, eta sexu-indarkeria armatzat hartzetik **gizateriaren aurkako⁴ krimen, gerra-krimen⁵** edo **genozidio-krimen⁶** izatera iragan zen.

Azkenik, hona hemen termino horren definizioa Gurutze Gorriaren eskutik.

“Sexu-indarkeria” terminoa erabiltzen da indarra edo hertsadura baliatuz inposatzen diren sexu-izaerako ekintzak deskribatzeko, hala nola indarkeriaren, atxiloketaren, bortxatze psikologikoaren edo botere-abusuaren beldurra erabiliz edozein biktimaren —gizonezkoa, emakumezkoa edo haurra— aurka egiten den ekintza oro. Ingurune hertsatzaile bati edo biktima bat askatasunez baimena emateko gai ez izateari abantaila ateratzea ere bortxatzeko modu bat da. Sexu-indarkeriaren barnean sartzen dira bortxaketa, sexu-esklabotza, prostituzio behartua, haurdunaldi behartua, esterilizazio behartua edo horiek bezain larriak diren sexu-indarkeria guztiak⁷.

¹ <http://www.un.org/en/preventgenocide/rwanda/about/bgsexualviolence.shtml>

² Beste iturri batzuen arabera, 100.000 emakumezko baino gehiago bortxatu zituzten urtean, 2005-2006 epean.

³ 1325, 1820, 1888, 1889, 1960, 2106, 2122 ebazpenak

⁴ ICTY

⁵ ICTR

⁶ Akayesu kasua

⁷ Gurutze Gorriaren orritik ateratako definizioa. <http://www.icrc.org/spa/resources/documents/faq/sexual-violence-questions-and-answers.htm>

ARIKETA-PROPOSAMENA

STOP RAPE NOW!

PARTE HAR EZAZU NAZIO BATUEK GATAZKETAN SEXU-INDARKERIARIK EGON EZ DADIN ANTOLATUTAKO KANPAINAN

Helburua: Gatazketan gauzaten den sexu-indarkeria bistaratu eta gure ingurunea kontzientziatu, indarkeria hori gaitzetsiz.




Garapena: Jarduera horretan parte hartzen duten pertsoneri eskatuko zaie **argazki bat ateratzea besoak X forman gurutzatuta dituztela** (ikur hori proposatu da horrelako indarkeria gaitzesteko konpromisoa adierazteko).

Argazki horiekin, erakusketa bat egin daiteke bilerak egiteko duzuen lekuan edo beste leku publiko batean. Argazki-oinean, fitxa honetako datuak jar ditzakezue, arazoaren dimentsioa nabarmentzeko. Bidal itzazue argazkiak eta igo itzazue gure sare sozialetara; era berean, gonbida itzazue zuen inguruko pertsonak ekimen honetan parte har dezaten.






Beste aukera bat da argazkiekin bideo bat egitea, ondoren duzuen honen antzekoa (Bakerako Unibertsitateak egina).

Nazio Batuen kanpainaren

<http://www.stoprapenow.org/take-action/> webgunean, estekak, orriak, ikusentzunezkoak eta beste material batzuk ere aurkituko dituzue; gainera, parte hartzeko beste modu batzuk ere ikusiko dituzue (eragiteko edo sentsibilizatzeko ekintzak).



INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO BITARTEKOAK

-  **Gatazketako sexu-indarkeriaren gairako ordezkari bereziaren webgunea:**
<http://www.un.org/sexualviolenceinconflict/>
-  **Nazio Batuen KEDko sexu-indarkeria azaltzeko webgunea :**
<http://www.un.org/sexualviolenceinconflict/es/paises/republica-democratica-del-congo/>
-  **ALBOANek bideoa emakumezkoen aurkako sexu-indarkeriari buruz:**
<https://www.youtube.com/watch?v=gir331S89gA>
-  **“Giza eskubideen abokatu” ENOUGHen bideoa:**
https://www.youtube.com/watch?v=w3gRPOU_Yqs
-  **Nazio Batuen 1325, 1820, 1888, 1889, 1960, 2106 eta 2122 ebazpenak:**
<http://www.un.org/es/peacekeeping/issues/women/wps.shtml>



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org

-en proiektu bat



lortzeagatik

www.gatazkarikgabekoteknologia.org